

# TOUR MONTE ROSA



## ILUNABARREKO MENDIA

Ainhoa Larrea



**M**ONTE Rosako bira egitea erabaki genuenean, 8 egunez Alpeetako mendien handitasunaz gozatzeko modu xamur bat izango zela pentsatu genuen. Pioletak, kranpoiak eta sokak etxean utzi eta



Karmel Leizaola izan dugu bira honetan gidari eta berak bilatu ditu bide, malda, zeharbide eta aterpe aproposenak. Guztira sei lagun ibili gara mendian gora eta behera, eguraldi onaz gozatzen eta Alpeetako betiko paisai paregabeaz maitemindurik bueltatu gara etxera. Askotan ez da urrutiegi joan behar txoko berdingabeak topatzeko.

### ■ 1. EGUNA

Chamonix-erako bidai luze eta pisutsua atzean utzi ondoren, Randara abiatu ginen abuztuaren 10ean goizean goiz. Suitzako herrixka honetan furgoneta utzi eta zortzi egun beranduago bertan aurkitzea espero genuen. Motxila bizkarrean hartu eta zortzi egunetan gure gorputzeko beste zati bat gehiago izango zenaren pisua eta formara ohitutzen hasi ginen. Eguzkiak ongiatorria eman bezain laister, aste g u z t i a n

gurekin egoteko gonbidapena luzatu genion, nahiz eta Karmelek motxilan sartu zuen lehenengo gauza aterkia izan (hura zen taldeari animoak emateko modu bikaina!). 8 egun, 160 km eta desnibel dexenteak genituen aurrekaldean, baina lehenengo egun hone-

tan indarrak eta mendiaz gozatzeko gogoia soberan genituen!

Karretera azkar utzi ondoren, pinudi batetik gora egin genuen, 4000 metrotako mendiek inguratzen gintuzten bitartean. Hamaiketako egitera gelditu ginen magaletik Zermatt-eko aparkalekuko autoen kristalen disdirak gure arreta bereganatu zuen, baina segituan atzekaldean agertzen zen Cervino-k liluratu gintuen. Hantxe bukatuko genuen gure bira azkenengo egunean eta bidean, egunero mendi batez gozatzeko aukera. Grächen aldera abiatzerakoan, karakol erraldoiak, basoko marrubiak eta landare bereziak genekusan. Bidean, hankak freskatzeko aukera ere izan genuen, auskalo nondik jeisten zen ur izoztuarekin egindako zirkuitu batean. Odola

*Guztira sei lagun ibili gara mendian gora eta behera, eguraldi onaz gozatzen eta Alpeetako betiko paisai paregabeaz maitemindurik bueltatu gara etxera*

suspertu eta nekea uxatzeko parada bikaina izan zen. Haatik, azkenengo ordubetea gogorra izan zen, aterpea eski pista ba-

tzuen goikaldean zegoelako, baina esfortzuak pena merezi izan zuen, goikaldetik Weisshorn mendiak kiñu egin zigulako. Mendi dotorea da, oso forma finekin eta aldapa elurtuek eguneko erreginean bilakatu zuten.

## ■ 2. EGUNA

Bigarren eguneko etapa, Hanning-etik Saas Almagell-era zihoan eta aste guztiko etaparik ederrenetakoa izan zela esan dezakegu. Behe lainoak eman zizkigun egunonak eta eguerdi parteraino gurekin egon zen. Aterpetik gora bidexidor bat hartu eta, egun guztian, ongi konpondutako bide batetik ibili ginen (harriekin egindako eskailerak, barandak, urjauziak pasatzeko metalezko zilindroekin egindako tunelak, ...), baina ezkerrealdean izugarritzko sakana izan genuen lagun bide guztian. Behekaldean, bailarako etxeak aski txikiak ikusten ziren eta, bestaldean, berriz, hamaika mendi handiren presentzia. Guztien artean Weismies handia (4023 m) bereizten zen, aldamenean Laguinhorn (4010 m) duelarik. Saas Fee-ra iritsi bezain pronto, zibilizazioa gainera etorri zitzaigun: eskiatzaileak, taxi elektrikoak, lore koloretsu eta liluragarri apainduriko balkoiak, ... pereza piska bat ematen du, egun guztiko isiltasuna puskatzen delako, baina aterpeko afari goxoak pena merezi izan zuen. Gainera, Eustakik motxilan zerman bi litrotako whiskiak bizkar eta hankeko minak ahaztu arazi zizkion bati baino gehiagori.

## ■ 3. EGUNA

Hirugarren egunean, Saas Almagell-etik Macugnaga-ra joan ginen, Suitza utzi eta Italian sartuz. Egun gogorra izan zen, 1600 m inguruko desnibela egin baikenuen. Eguneko helburua Monte Moro (2868 m) izan zen, baina bidean borroka behiak ikusteko aukera izan genuen. Horrelako bidaiak jendearen interes desberdinek aberasten dituzte eta, taldean artzai bat generamanez, behi borrokalariak kontzen zituen baserritararekin instant polita pasa genuen: beltz-beltzak dira behi hauek eta Italiarekin mugan dagoen Suitzako zonalde honetan nahiko ezagunak omen dira behi borroka hauek. Behi erregina eza-gutzeko aukerari ere heldu genion, haserretzen denean aski urruti egotea komenigarria dela ondorioztatuz. Euskal Herritik eramandako gazta utzi genien gure oroi-men moduan.

Monte Morok sorpresa berezia gordeta zuen guretzat eta urre koloreko Madonna-ren aldamenara iritsi ginenean, Monte Rosa ageri zen azkenean! Dufourspitze da Monte Rosako gailurrik garaiena, bere 4634 metroekin eta ekialdeko paretek izugarritzko dardara sortarazten dute: desnibel sineste-

zinezko pareta elurtuak. Macugnaga herrira oso jetsiera luzea genegien eta Italiak sorpresa bat baino gehiago eskainiko zizkigula ulertu genuen: erreserba eginda genuen aterpeak kalean utzi gintuen. Azkenean, logela batzuk alokatu zizkiguten itxita zegoen aterpe batean eta hurrengo egunerako indarrak berritzeko aukera izan genuen.

## ■ 4. EGUNA

Laugarren eguna ere gogorra izan zen, Macugnaga-tik Alagna-ra. Oso bailara polita pasa ondoren, Collado del Turlo-ra igo ginen (2738 m). Igoera guztian harri handiez egindako bidea topatu genuen, igoera tajuz erreztu zigularik. Erromatarren bidea zirudien, baina harrietan 1808 urtea idatzita gene-kusan eta Alpini-ek egindakoa zela zirudien. Hori lana! Mendi lepora iritsi ginenean, mendiaren bestaldean bide berdina jarraipena zuela ikusi genuen. Vasasi Parke Naturalean barrena sartzerakoan, Monte Rosak beste aurpegi erabat desberdina erakutsi zigun. Basahuntza desberdinak (stambecko, mufon, ...) ikusi eta gero, Refugio Pastore-ra iritsi ginen. Gaua pasatzeko leku zoragarria da: harrizko etxe txikiz osaturiko herrirka baten antzekoa da eta aurrekaldean, Monte Rosa bere handitasun osoan dauka. Ilunabarreko izpien zain geratu ginen, arroxak koloreko mendia noiz agertuko zen esperoan eta magal zuriek, behin Milanetik arroxak bilakatzen zen mendi handi hura ikusi zuen erreginarenean begiekin ikusteko aukera izan genuen.

## ■ 5. EGUNA

Bostgarren egunean hanketako babak eta nekea nabaritu ziren. Egun gogorra izan zen hau ere. Refugio Pastore-tik Refugio Gabiet-era joan ginen, TMR-ko hegoaldean dagoen puntura iritsiz. Ondoren, Passo Foric eta Col d'Olen (2881 m). 1700 metro inguruko desnibela egindakoan, mendebalderuntz jeitsi ginen, laku batera iritsi arte. Lakutik gertu Gabiet aterpea dago, lehio txuri-gorritz apaindurik, Athletic zaleak izango bailiran. Kanpokaldean hamaka erosotan etzanda, aparteko paisaiaz goza daiteke: Castor, Liskam, Parrotzpitze, ...

## ■ 6. EGUNA


Seigarren eguna, Refugio Gabiet-etik Resy-ra iristeko erabili genuen. Teorian egun lasaiena, baina denetan itsusia izan zen, egun guztian eskiko pista batzuetatik gengtzen eta. Agian, bidai honek duen alde txarrena horixe da: teleferikoak. Edozein mendi lepora iristen dira eta, asko izerditu ondoren, lepora edo gailurrera iristen zarenean, teleferikoan igo diren turistekin topo egiten duzu. Abuztuaren 15a egun berezia da, gidarien eguna ospatzen baita, eta aterpean festa berezia izan genuen: meza, aintzineko jantzi eta txapelak atera zituzten gidariek, afari oparoa, ...

## ■ 7. EGUNA

Bidaia bukatzen ari ginen eta zazpigarren egunean etaparik gogorrena egin genuen.



egunero zazpi ordu inguruko ibilbidea egiteko asmoarekin irten ginen. Mont Blanc-eko tour-eko jendetzatik ihes, gure mendiaren izen bitxiak erakarri gintuen: elurraren txuria eta belarraren berdea erraza da topatzea, baina arroxak ...



Ezkerretara, goian eta azpian.

- Saas bailarara eramaten gaituen bidea, oso ondo egokituta dago
- Monte Moro lepotik, Monte Rosaren ekialdeko aurpegia
- Gandegg aterpetik, Matterhornen ekialdeko aurpegia eta Dent Blanche urrutira



ARGAZKAK: KARMELEZAZOLA



Resy-tik atera eta Collado Superior de la Cima Blanca-ra igo ginen. 1100 metrotako desnibela ondoren, zatirik ederrena ailegatu zen: erreka baten albotik lautada berde zoragarriak pasa genituen, turkesa koloreko laku batera iritsi arte. Goruntz gindoazela beste bi laku gehiago ikusi genituen eta, azkenean, mendi lepora iritsi ginenean, Cervino ikusteko esperantzarekin, lainoa sartu eta lehenengo euri tantak hasi ziren. Theodulpas-era igo behar genuen, teleferriko baten azpikaldetik. Bidai guztiko punturik garaiena da, 3317 m, eta elurrak ongi-ortria eman zigun. Goikaldetik paisai ederra ikusteko parada izan genuen, Matterhorn (4478 m) nagusi zelarik. Gandegg aterpera euritan iritsi ginen, baina aldamean dagoen glaziar handiak eta Cervino-k beraien edertasuna ageri ziguten.

**8. EGUNA**

Monte Rosako bira bukatzeko Zermatt-era jeistea besterik ez zitzaigun gelditzen, baina aste guztiko eguraldi honak ihes egin zigun eta haizea, euria eta kazkabarra etorri ziren gu agurtzera. Azkenengo eguna hondatu egin zitzaigun, Cervino-k bere forma ezberdinak ezkutatu zituelako, baina pozik eta nekatuta iritsi ginen furgonetara. Arazoak, ordea, ez ziren bukatu. Gure furgoneta kateatuta aurkitu genuen eta jatetxe bateko emakumeak aparkaleku pribatuan zortzi egunez furgoneta utzi izanagatik, izugarriko dirutza kobratu nahi izan zigun. Sekulako tira-bira izan genuen berarekin eta poliziaren zain ordu mordoan egon ginen. Kontuz non uzten duzun furgoneta eta, kartelik ez badago, ez iezaiozuela xoxik ere ordaindu. Ez omen da egiten duen lehenengo aldia.

**Ezkerretara eta goian**

- Saas bailarara eramaten gaituen bidea
- Alpe Faller eta Turlo lepoa urrunean

Chamonix-en azkenengo gaua pasa ondoren, furgonetako 13 ordu luzeak gelditzen ziren etxerako bidean. Bidai luzea eta pisutsua bilakatzen da, hainbeste egun

mendian oinez ibili ondoren, furgonetako espazioa txikiegia bihurtzen delako. Hala ere, bidaiak pena merezi du eta ilunabar egokietan Monte Rosak bere alde arroxa erakusten du, bere magaletara begiratzen duten mendizale guztiei.

Sergio, Macata, Javi, Eustaki, Karmel... hurrenarte!

**FITXA TECNICOA**

2001.eko abuztuaren 10 eta 17aren arteko egunetan egindako zeharkaldia.

**Antolatzailea:** Mendiak eta Herriak mendi gidari elkarte.

**Partaideak:** Ainhoa Larrea, Eustaki Urkizu, Sergio Magadan, Sergio Urdangarin, Javier Sanchez eta Karmel Leizaola. □

**LA VUELTA AL MONTE ROSA**

**S**IN las multitudes que peregrinan en verano haciendo el tour del Mont Blanc, la vuelta al Monte Rosa es una alternativa atractiva. Ainhoa nos cuenta cómo lo hicieron el verano pasado seis amigos, para completar en ocho días la travesía de 160 km de recorrido y 9000 metros de desnivel de subida, hasta ver desde la mejor perspectiva cómo la montaña se pintaba de rosa al amanecer.

